

Berangoko Udalak Haur Liburutegiaren inaugurazioa egingo du

BERANGO.- Udalak gune berria egokitu du Haur Liburutegirako, Kultur Etxean. Liburutegi bereizitako lekua izango du eta hobeto hornitua egongo da. Gune berriaren helburua da herriko umeen artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea. Haur Liburutegi berria datorren larunbatean inauguratuko da, hilak 13an, goizean. Udalak ekitaldi desberdinak antolatu ditu. 11:00etatik 14:00ra bitarte, euskal mitologiari buruzko tailerrak egongo dira haurrentzat, Berangoeta Kutur Etxeko gune guztietan. Bisita gidatuak egingo dira eta, kanpoan, jolasgunea irekiko da. Euria arituz gero kanpoko jolasgunea eskolako patioan jarriko da.

12:30etan, Haur Liburutegiaren zerbitzuei buruzko hitzaldi informatiboa egongo da nagusiei zuzenduta. Haur Liburutegian umeentzat eta nagusientzat garatuko diren proiektu eta zerbitzuei buruzkoa. Bukatzeko, ordu berean, 'Alfonbra Magikoa' ikuskizuna hasiko da. Irakurtzera animatzeko ikuskizuna da eta haurrei zuzendua dago.